

Drogen nahasketaren arriskuak

Sekuentzia labur honetan, drogen egungo kontsumoa gaitik abiatuta, honako jarduerak egingo dituzu:

- * Elkarrizketa bat entzun ondoren, ulermena proban jartzeko galderen erantzunak hautatu.
- * Erreportajea irakurri aurretik, gaiari buruzko zenbait aurrezagutza proban jarri.
- * Erreportajea irakurri eta ideia eta datu klabez jabetu: egiak eta gezurak identifikatu.

Kontuz drogen nahasketarekin

Denok dakigu drogen kontsumoak kalte fisiko eta psikiko izugarriak sor ditzakeela, eta horren erabilera okerrak are handiagoak. Elkarrizketa honetan AILAKET elkarteko kide den Maitanek horretaz guztiaz hitz egingo digu.

Entzun ondoren, zure ulermena proban jartzeko zenbait galderari erantzungo diezu.



Entzungaiaren hasieran eman duen albistea nola laburtuko zenuke? Erantzun zuzena aukeratu.

- Asteburuan, 32 urteko gazte bat hil da Bilbon, hainbat droga batera kontsumitzearen ondorioz. Egin zaion lehen autopsiaren arabera, hartu zituen drogek hiltzerainoko intoxikazioa eragin diote.
- Asteburuan 32 urteko gizon bilbotarra hil da hainbat droga-mota kontsumitzera zihoala. Egindako autopsiak dioenez, lehendik hartuak zituen drogen eraginez hil da.
- Asteburuan, 32 urteko gazte bat hil da Bilbon, estasia eta alkohola kontsumitzeagatik. Egin zaion behin betiko autopsiaren arabera, garbi geratu da estasiak eta alkoholak hiltzerainoko intoxikazioa eragin diotela.

Maitaneren hitzetan, zein dira egun gazteek gehien hartzen dituzten drogak?

- Kristalak eta pilulak.
- Ketamina.
- Estasia eta anfetaminak.

Zein eragin ditu estasi likidoak?

- Eragin pizgarriak, besteren artean, denboraren eta espazioaren galera sortzen du.
- Gehienbat, eragin lasaigarria.



<https://labur.eus/gJ8Pt>

Gaur egun drogak nahasteko joera omen dago. Zer dio horretaz Maitanek?

- Drogak nahasten dituzten erabiltzaileei buruz ez dutela informazio handiegirik.
- Erabiltzaileek, droga-nahasketari dagokionez, ez dutela informazio askorik.
- Kasu guztietan oso kaltegarria izan daitekeela.

Drogak nahasten dituzten kontsumitzaileek zer bilatzen dute?

- Plazerra handitzea.
- Ondo pasatzeko gogoia piztea.
- Hartzen dituzten zenbait drogaren eragina handitzea.

Ailaket elkarteak: kontsumo arduratsua bultzatzeko

Ailaket elkarteko kideei eginiko elkarrizketa bat irakurriko duzu. Zer dakizu Ailaket elkarteaz? Irakurri aurretik, aukeratu ezazu galdera honen erantzun zuzena.

Noiz eta nola sortu ote zen Ailaket taldea?.

- Duela 15 urte sortu zuten zenbait guraso eta medikuk drogak dituen arriskuei buruzko informazioa emateko.
- Drogei buruzko informazio falta handia zegoela ikusita, 2012an sortu zuten zenbait droga-kontsumitzailek, autolaguntzarako.
- 2012an sortu zuten zenbait droga-kontsumitzailek drogekin arazoak zituztenei laguntzeko.

berria



Estilo liburua

Asteartea
2018ko urtarrilak 9

Gizartea Politika Ekonomia Mundua Iritzia Kultura Kirola Bizigiro Berria TB

Iritzia

«Oraindik gaizki ikusia dago drogak gozamenarekin lotzea»

2018ko urtarrilak 9



Ailaket taldea festaz festa dabil, urtero bezala, herritarren zalantzak argitzen eta drogen onurak eta kalteak azaleratzen. Urtez urte, jakin-mina piztuz doa; jende gehiago joaten da haien postura, aholku eske. Ricardo Caparros (1978, Gasteiz) elkarteko kide da, eta Euskal Herriko hamaika festatan ibili da azken hiru hilabeteetan.

Nola sortu zen proiektua?

Hasieran, droga kontsumitzaile batzuek taldea autolaguntzarako sortu zuten, Iruñean eta Gasteizen. Informazio falta handia zegoela ikusi zuten, eta 2002. urtean Ailaket sortu zuten. Handitu eta borobildu egin da proiektua; kolektibo batentzat zegoen pentsatua hasieran, eta gizarte osoari irekita dago orain.

Zein da, gaur egun, Ailaketen helburua?

Gure helburua ez da jendearen erabakietan eragina izatea. Pertsonen, substantziei eta inguruari buruzko informazioa ematea da xedea: jendeak, erabakiak hartu ahal izateko, nahikoa informazio izatea. Ongi pasatzeko drogak nola erabil daitezkeen azaltzen dugu, eta zer arrisku duten ere bai. Adibidez, nahasketek izan ditzaketen arriskuak nabarmentzen saiatzen gara.

Zergatik da hain arriskutsua drogak nahastea?

Nahasketekin arrisku guztiak areagotzen dira, eta aukera gehiago dago esperientzia txar bat izateko. Betidanik egin izan dira nahasketak: adibidez, normaltzat hartzen dugu

kafea whiskiarekin nahastea, eta bizigarri bat beheratzaile batekin nahasten ari gara. Nahasketak egiten dituen jendeak horiek maneiatzen jakin behar du, eta hori zaila da. Jendeak nahasketak egiten ditu droga batekin bestearen efektua orekatzeko: alkohol gehiegi edan eta, animatzeko asmoz, speeda hartzen baduzu, speedaren efektua pasatu ondoren, alkoholarena izango duzu berriro. Droga batek ez du bestearen eragina desagerrarazten, ezkutatu baizik.

Herrietako festetan zabiltzate informazioa banatzen. Jendea ausartzen al da zalantzak galdetzera?

Batzuetan, jendea lotsatu egiten da, batez ere, ezagutzen ez bagaituzte. Hala ere, hamar urte baino gehiago daramatzagu Euskal Herriko festetan, eta ia herri gehienetan ezagutzen gaituzte. Zerbitzua ezagutzen dutenek, normalean, errepikatu egiten dute. Guk eskaintzen dugun zerbitzua ez da droga kontsumitzaileentzat soilik, gizarte guztientzat da; beraz, mota guztietako pertsonak etortzen zaizkigu.

Zein dira euskal herritarrek, oro har, izaten dituzten zalantzak?

Lege aldetik dauden mugei buruzko galdera asko jasotzen ditugu, batik batik kalamuari buruzkoak. Legez kanpoko drogekiko zalantza asko dago.

Bestalde, errepideetan egiten diren kontrolei buruzko zalantza asko ditu jendeak: zerk ematen duen positibo, noiz, nola... Legez kanpoko drogekin,

gorputzak drogaren azken hondarrak kanporatu arte positibo eman dezakezu, nahiz eta, askotan, gidatzean eraginik ez duen horrek. Legedia ez dago eguneratua droga kontuetan. Drogen efektuei eta nahasketei buruz ere asko galdetzen dute.

Gazteria ongi informatuta dagoela uste duzu?

Informazioa badute, baina era guztietako informazioa dago. Informazio ona badago, baina baita sasi-informazioa eta beldurra eragiten duen informazioa ere. Gure helburua informazio sinesgarria eta zehatza eskaintzea da. Substantziei buruzko informazioa, aukerei eta arriskuei buruzkoa eskaintzen dugu guk, besteak beste. Informazioa garrantzitsua da, baina pertsona arduratsuak izan eta erabaki egokiak hartzeko gai izatea ere bai; hori ikustarazten saiatzen gara.

Haur eta gazteen oinarritzko heziketan drogei buruzko informazio nahikoa ematen da?

Oraindik gaizki ikusia dago drogak gozamenarekin lotzea. Askotan, haur eta nerabeei gaia tabu gisa aurkezten zaie, beldurra dagoelako. Gure ustez, hori ez da aukerarik egokiena; ez dugu esan nahi gazteak droga kontsumitzaera animatu behar direla, baina garrantzitsua da haiekin prebentzioa, arriskuak eta ondorioak objektiboki lantzea.

Berria.info web ataritik hartua. Testu moldatua.

Gezurak identifikatu

Orain irakurri arretaz elkarrizketa eta azpimarratu ezazu zure ustez garrantzitsua den informazioa. Ondoren, ematen zaizkizun baieztapen hauek egia ala gezur diren adierazi behar duzu.

1. Ailaket taldearen helburua da kontsumitzaileei hartzen dituzten substantziei eta inguruari buruzko informazio zehatza ematea.

Egia Gezurra

2. Droga-nahasketarekin eragin kaltegarriak izateko arriskua ez da beti hain handia izaten.

Egia Gezurra

3. Ailaket taldeak eskaintzen duen zerbitzua oraingoz droga-kontsumitzaileei bakarrik dago zuzendua.

Egia Gezurra

4. Talde honetara jotzen dutenek askotan galdetzen omen diete drogen efektuei eta nahasketei buruz.

Egia Gezurra

5. Egun, gazteek badute drogei buruzko informazioa, baina baita sasi-informazioa ere.

Egia Gezurra

6. Prebentzioa lortuko bada, garrantzitsua da drogen kontsumoa beti plazerrarekin lotzea.

Egia Gezurra

7. Drogak nahasten dituen jende askok uste du droga baten efektua beste drogarekin orekatuko duela, baina askotan droga batek bestearen efektua ezkutatu egiten du.

Egia Gezurra

Erzantzunak

Kontuz drogen nahasketarekin

Entzungaiaren hasieran eman duen albistea nola laburtuko zenuke? Erantzun zuzena aukeratu.

- Asteburuan, 32 urteko gazte bat hil da Bilbon, hainbat droga batera kontsumitzearen ondorioz. Egin zaion lehen autopsiaren arabera, hartu zituen drogek hiltzerainoko intoxikazioa eragin diote.

Maitaneren hitzetan, zein dira egun gazteek gehien hartzen dituzten drogak?

- Kristalak eta pilulak.

Zein eragin ditu estasi likidoak?

- Eragin pizgarriak, besteren artean, denboraren eta espazioaren galera sortzen du.

Gaur egun drogak nahasteko joera omen dago. Zer dio horretaz Maitanek?

- Erabiltzaileek, droga-nahasketari dagokionez, ez dutela informazio askorik.

Drogak nahasten dituzten kontsumitzaileek zer bilatzen dute?

- Plazerra handitzea.

Noiz eta nola sortu ote zen Ailaket taldea?.

- Drogei buruzko informazio falta handia zegoela ikusita, 2012an sortu zuten zenbait droga-kontsumitzailek, autolaguntzarako.

Gezurak identifikatu

1. Ailaket taldearen helburua da kontsumitzaileei hartzen dituzten substantziei eta inguruari buruzko informazio zehatza ematea.

- Egia Gezurra

2. Droga-nahasketarekin eragin kaltegarriak izateko arriskua ez da beti hain handia izaten.

- Egia Gezurra

3. Ailaket taldeak eskaintzen duen zerbitzua oraingoiz droga-kontsumitzaileei bakarrik dago zuzendua.

- Egia Gezurra

4. Talde honetara jotzen dutenek askotan galdetzen omen diete drogen efektuei eta nahasketei buruz.

- Egia Gezurra

5. Egun, gazteek badute drogei buruzko informazioa, baina baita sasi-informazioa ere.

- Egia Gezurra

6. Prebentzioa lortuko bada, garrantzitsua da drogen kontsumoa beti plazerrarekin lotzea.

- Egia Gezurra

7. Drogak nahasten dituen jende askok uste du droga baten efektua beste drogarekin orekatuko duela, baina askotan droga batek bestearen efektua ezkutatu egiten du.

- Egia Gezurra

Transkripzioa [-]

Esataria- Asteburu honetan bestalde, 32 urteko gazte bat hil da Bilbon, horrela jakin dugu, hainbat droga batera kontsumitu ondoren, tartean estasi likidoa, speede-a eta alkohola. Autopsiaren behin betiko emaitzen zain, lehendabiziko azterketek diote intoxikazio larria eragin ziotela, heriotzarainokoa. Drogen kontsumo arduratsua bultzatzeko AI LAKET elkarteko Maitane de Anituari deitu diogu argitasun bila.

E- Egun on, Maitane!

M- Egun on!

E- Drogen nahasketa izango zen heriotza eragin diona? Horrela adierazi dute, horrela esan dute: nahasketa baten ondorioa izan daitekeela.

M- Bai, komunikabideen esanetan ba gau berean gazte honek hartu omen zuen estasia, anfetamina eta alkohola, guztia batera. Hori da behintzat komunikabideek diotena.

E 2- Berriena da, edo behintzat guri berriena egin zaigu estasi likidoarena. Zer droga da estasi likidoa?

M- Ezagunagoa da EHB izenagatik. Berria, ez da droga berria, aspalditik atera zen. Baina, bere erabilera gero eta entzunagoa egiten ari dela. Dena den, beno...guk behintzat ikertu ditugu pare bat alditan GHBko lagin batzuk, baina, beno ez da ezta ere gazteen artean asko zabaldutako droga behintzat MDMAri dagokionez. MDMA itxuran, gehien hartzen dena kristala izango litzateke, eta pilulak, honen ostean.

E- Estasiarekin badu zerikusirik estasi likido honek?

M- Bai, berez beno ba, izaera oso antzekoa da, izango da deribatu antzeko bat bai? Eta eraginak egia da pixka bat desberdinak direla. Dena dena, dosiak zerikusi handia du kasu honetan.

E 2- Zer eragin izan ditzake estasi likido horrek?

M- Eragin pizgarriak, batez ere, eta gero ba, beno, soinu eta irudian ez dakit halako nahasmendu bat, ez dakit halako denboraren eta espazioaren galera pittin bat.

E- Maitane, irakurri dugunez etxean bertan prestatu daitekeen droga da. Hori horrela da?

M- Bai, antza denez, badago etxean prestatzea. Bai, GHBA eta bai bestelako substantziak, ketamina demagun, bada etxean presta daitekeen beste gauza bat. Gero erraza ala zaila den prestatzea, hori beste gauza bat da. GHBA prestatzeko tresnak edo eskuragarriak dira. Interneten ere badaude edo ematen dituzte argibide batzuk hori prestatzeko. Baina hortik erraza izatea fabrikatzea edo zaila den fabrikatze edo ondo fabrikatzea gauza bat da eta beste gauza bat da ea modan dagoen fabrikatzea edo ez, hori behintzat pertsonalki ez dudala uste.

E 2. Beno, egia da horrelako notiziek eragiten dutela halako harridura eta alarmismoa ere bai, neurri batean, ba entzuten dugunean 32 urteko gazte bat hil dela eta beharbada kontsumitu zituela batera hainbat droga, tartean estasi likidoa, ba horrek eragiten du alarmismo bat, baina zuek zuen esperientziatik zer esango zenukete? Kezkagarria da oso gazteen droga-kontsumoa edo kontsumo arduratsua dago gure gazteen artean?

M- Eh, beno, dago denetarik, bai? guk behintzat egiten dugu lan kontsumo arduratsuan, edo arriskua murrizteko. Egia da polikontsumorako joera handia dagoela, hau da, substantzia ezberdinak nahastearena, bai gau berean substantzia bat ohi baino gehiago hartzea. Hori aspalditik dagoen joera da. Baina, gero kasu honetan dago desinformazio handia erabiltzaileen inguruan, egindako nahasketei dagokienez. Ez da berdina estimulante bat beste pizgarri batekin nahastea edo depresore bat pizgarri batekin; hau da, nahasketen inguruko informazio gutxi dagoela uste dugu.

E 2- Eta imajinatzen dut polikontsumoa berez, ona ez dela, droga diferenteak nahastea ez dela ona izango. Esan nahi dut..

M- Ez, ez da batere gomendagarria. Normalean, helburua, nahastearena, erabiltzaileen kasuan izaten da plazer handiagoaren bilaketa, baina ez baldin bada, polikontsumoa ondo egiten edo neurritz kanpo egiten baldin bada, ba, plazerra alde batera uzten da eta nahi ez diren eraginak agertzen dira.

E 2- Arrisku handiak har daitezke ezta?

M- Hori da!

E 2- Polikontsumoak arrisku handiak ekar ditzake. Oso ondo, ba, Ai laket elkarteko Maitane, eskerrik asko hau guztia kontatzeagatik.